



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Musika eta Dantza Eskola

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián



AUSARTU! Maiatzaren 16tik 31ra 2022-23 ikasturterako izen ematea zabalik

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak 2022-23 ikasturterako izena emateko epea ireki du, musika edo dantza ikasi nahi duten pertsona guztientzat.

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak hezkuntza eskaintza zabal eta anitza du, adin guztietako pertsonentzako aukerekin. Egun, Eskolan **2481 ikasle matrikulatuta** daude 29 instrumentu, 3 dantza espezialite, eta guztira 80 irakasgaitan antolatzen diren 294 talde eta banaka zein taldekako instrumentu eskoletan.

Eskolaren jarduna ez da ikasgelara mugatzen, ikasleek kontzertuak, emanaldiak eta eskolaz kanpoko beste jarduera batzuen bitartez, hiriaren kultur bizitzan parte hartzen baitute.

Horregatik, aurtan, **AUSARTU!** lelopean herritar guztiei deialdia luzatu nahi die Eskolak, musika eta dantza gizarteratzeko eta osasun fisikoa, emozionala eta kognitiboa hobetzeko tresna apartak direla azpimarratuz.

Norberak edo inguruneak ezarritako mugak gainditu, adin, gaitasun, ezagutza maila edo generoarekiko egokitasunagatik izan daitezkeen aurreiritziak alde batera utzi eta bakoitzaren nahi eta beharretara egokitzen den irakasgaia aukeratuta, musika eta dantzarekin gozatzeko aukera bikaina zabaltzen da.

Izen ematea

Eskolaren hezkuntza eskaintza osoaren kontsulta eta izen ematea Eskolako webgunean, www.donostiaeskola.eus, egin daiteke maiatzaren 31 arte.

Egoera ekonomikoa musika edo dantza ikasteko eragozpena izan ez dadin, Eskolak [Prezio Publikoetan](#) Gizarte Intereseko Prezioak ditu. Maila desberdinetan, honako talde hauek gizarte intereseko prezioetarako eskubidea dute: DSBE (RGI) edo Gizarte Larrialdiko laguntza jasotzen dutenak, familia ugariak, zehaztutakoa baino diru sarrera txikiagoa duten familia unitateak, guraso bakarreko familiak eta familia bereko hainbat pertsona matrikulatuta dituzten familia unitateak.

Besteak beste, ondorengoa da Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolaren eskaintza 2022-23 ikasturterako:

- 0-2 urteko haur eta haien gurasoentzat musika hastapen goiztiarra.
- 3-5 urteko haurrentzat Musika eta Mugimendua (auzoetan ere).
- 6-7 urteko ikasleentzat Musika Tailerra (auzoetan ere).
- 8 urtetik aurrera, adin mugarik gabe, 29 musika tresna ezberdin.
- Musika taldeak: Orkestrak, Bandak, Big Band-ak, Rock, Pop eta Jazz taldeak, Ensembleak, gitarra, txistu, akordeoi eta trikitixa taldeak...
- Irakasgai osagarriak: Musika Kultura Helduentzat, Harmonia, Moldaketak, Inprobisazioaren hastapenak, Musika Hizkuntza, Zuzendaritza Praktikak...
- Hezkuntza arauturako prestakuntza: Ikasketa profesionaletarako eta goi mailako ikasketetarako prestakuntza taldeak.
- 65 urtetik gorakoentzat musika tailerreko talde bereziak.
- 6 urtetik aurrera, adin mugarik gabe, Euskal Dantza, Dantza Garaikidea eta Dantza Klasikoa.

Instrumentu PLUS

2022-23 ikasturterako, Atotxako egoitzan hezkuntza eskaintza berria egingo da: "Biolina PLUS". Aurreko ikasturteetan ere eskaini diren Tronpeta, Tronboi eta Perkusioa PLUS irakasgaiei, aurreko biolina gehituko zaie 8-10 urteko ikasleentzat.

Instrumentu PLUS irakasgaietan, ikasleek instrumentua eta musika hizkuntza lantzen dute instrumentu irakaslearekin, taldekako saio integratuetan. Modu honetan, ikasleek astero denbora gehiago ematen dute Eskolan instrumentua jotzen eta ikaskideekin batera egoteak, sozializatzeko, elkarrengandik ikasteko eta motibazioa mantentzeko aukerak handitzen ditu.

+65 Musika Tailerra

Ausartu! leloarekin bat eginez, Eskolak 65 urtetik gorako herritarrentzat eskaintza berezia du, musika formaziorik ez duten pertsonen musikaren bizipenak dakartzan onura emozional, fisiko eta mentalak jasotzeko aukera izan dezaten.

Musika Taldeak

Eskolak maila eta musika estilo ezberdinetako taldeak ditu, herritarren eskura. Ez da ezinbestekoa beste irakasgaiak egitea Musika Eskolan taldeetan parte hartzeko; nahikoa izango da talde bakoitzean parte hartzeko maila egokia izatea.

Eskaintza hiri osoan

Atotxako egoitza nagusiko eta Dantza Eskolako eskaintzaz gain, Donostiako auzoetako egoitza guztiek 3-7 urteko ikasleei zuzendutako irakasgaiak izango dituzte, hala nola Musika eta Mugimendua eta Musika Tailerra. Horrez gain, 8 urtetik gorako ikasleentzat Musika Proiektuetako klaseak eskainiko dira **Antiguako egoitzan**, Txalaparta eta Dultzaina **Antiguan**, banakako Piano klaseak **Salaberrian** eta Gitarra eta Kantua **Urbietako egoitzan** 16 urtetik gorakoentzat.

Ekialdeko barrutiko eskaintza

Herrera, Altza eta Intxaurrendoko egoitzetan adin guztietarako irakasgaiak egongo dira, hala nola Musika eta Mugimendua 3 eta 5 urte bitarteko txikienentzat eta Musika Tailerra 5 eta 7 urte bitartekoentzat. 8 urtetik aurrera eta adin mugarik gabe, **Altza eta Intxaurrendoko egoitzetan** banakako Piano klaseak eskainiko dira.

Herrera ikastetxean, Bateria, Bombardinoa, Flauta, Panderoa, Perkusioa, Saxofoia, Trikia, Tronboia, Tronpeta, Baxu Elektrikoa, Gitarra Elektrikoa, Gitarra Klasikoa, Kontrabaxua, Biola, Biolina eta Biolontxeloko banakako eskolak eskeiniko ditu. Musika Hizkuntzako klaseak jaso eta hainbat musika taldetan parte hartzeko aukera ere izango da bertan.

Musika Gertu

Eskolaren ohiko eskaintzaz gain, Ekialdeko barrutian arte hezkuntzarako sarbidea hobetu eta musikaren bidez gizarte kohesio handiagoa eraikitzeko, Eskolak "Musika Gertu" proiektuarekin jarraituko du datorren ikasturtean. **Herrera eta Altzako ikastetxeetan** bertako Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, eta **Bideberri institutuarekin lankidetzan** Ekialdeko barrutiko 12-18 urte bitarteko gazte guztientzat.